

# ARTEA ARTISTA ETA TRAUMAREN ARTEKO BITARTEKARI GISA. PSIKOANALISITIK ARTERA EGINIKO HURBILKETAK ETA LOUISE BOURGEOIS-EN ESKULTURA

**Tesiaren egilea:** Amaia Zurbano Camino

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Eskultura

**Tesi-zuzendaria:** Elena Mendizabal Egialde

**Tesiaren laburpena:**

Tesi honen helburua arteak artistaren eta haren esperientzia mingarrien artean bitartekari gisa dituen balioak aztertzea eta hori Louise Bourgeois artistaren kasuan nola zehazten den ikustea da. Tesiak bi zati ditu: lehenengoak erreferentziarako eremu teorikoa zedarritzen du; *trauma* terminoa aztertzen du eta psikoanalisisiko egile ezberdinen arteari buruzko teorien hurbilketa egiten du: Sigmund Freud, Melanie Klein, D.W. Winnicott eta Jacques Lacan-en teoriak aztertzen dira, bai eta Anton Ehrenzweig eta Arte-terapiarenak ere.

Bigarren zatian, Louise Bourgeois eta bere XX. mendeko eskultura-lana (1941-1999) aztertzen dira. Hasteko, biografia dugu, artistak berak traumatikotzat jo dituen bizipenak eta gertaerak azpimarratuz. Ondoren, bere eskultura-lanaren sailkapen morfologikoa eta kronologikoa dago, artistaren beraren adierazpenekin batera.

Ondorengo bi kapituluetan bere eskulturaren ezaugarri morfologikoak eta materialak lantzen dira, bai eta artistaren jarrerari, prozedurari eta esanahiari lotutako arlo aipagarriak ere; bere artelanetatik eta bere adierazpen eta elkarrizketetatik jasotako ideiak dira azterketa horren oinarrian.

Tesian sakonki landu diren gaien artean, ondoko hauek aipatuko genituzke: Geometria, polaritatea eta bere oinarritzko gaiak, gorputza eta etxea; bokazioak duen garrantzia, bere eskulturari ematen dion balioa exorzismorako eta psikoanalisisirako modu gisa, eskulturaren ukigarritasunaren eta gorpuztasunaren garrantzia, eta bere eskulturen esanahia. Hau da, esanahi autobiografikoa eta autoerreflexiboa izanez, Bourgeois-en bizipen traumatikoa elaboratzeko eta berrelaboratzeko edo berreraikitze erabakigarria den oro aztertu nahi izan da tesian.

